



EUSKADIKO
ORKESTRA



EUSKADIKO
ORKESTRA

Eusko Jaurlaritzako Inerri-Balitzia
Bozkatuak Publikoak daude Gabeak

klasika

MICHEL CAMILO



Euskadiko Orkestra / Orquesta de Euskadi
Rubén Gimeno zuzendaria / director

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi
Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

medios@orquestadeeuskadi.es / prensa@orquestadeeuskadi.es
www.euskadikoorkestra.es



EUSKADIKO
ORKESTRA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa etengabe saiatzen da entzulego berriak erakartzen eta, bide batez, bere musika gizarte osora zabaltzen. Ahalegin horren emaitza gisa, Orkestrak kontzertu-ziklo berri bat aurkezten du:

KlasikAT

Asmo handiko egitasmo honek, zikloaren izenak berak adierazten duen moduan, Orkestra beste ikuspegi batetik entzuteko gonbitea luzatzen du, musika klasikotik aldenduz bestelako generoez gozatzeko gonbitea alegia. Horretarako Euskadiko Orkestrak nazioarte mailako artista gailenak hartu ditu bidelagun. Esaterako, irailaren 7a eta 10a bitartean Orkestrarekin batera Bilbo, Iruñea, Donostia eta Gasteizen kontzertuak eskainiko dituen **Michel Camilo** jazz latindarreko pianojotzaile eta konpositorea eta Oscar baten irabazle gertatutako **Jorge Drexler** uruguaitar kantautorea, azken honek 2011 urteko ekainan Orkestrarekin hiri horietan lau kontzertu emango dituelarik.

Sarrerak salgai daude ohiko bideetan eta auditorietako leihatiletan 15€ko prezio bakarrean.

Ziklo honen babeslea



Laguntzaileak

EL DIARIO VASCO



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi

Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

medios@orquestadeeuskadi.es / prensa@orquestadeeuskadi.es

www.euskadikoorkestra.es



EUSKADIKO
ORKESTRA

2010eko Iraila

Michel Camilo, pianoa

Rubén Gimeno, zuzendaria

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa



Kontzertuak

Irailak 7: Bilbo

Arteria Campos Eliseos Antzokia, 20.00 h.

Sarreraren salmenta: BBK-ko salmenta zerbitzuen bitartez eta Antzokiko leihatilan.

Irailak 8: Iruñea

Baluartea Auditorioa, 20.00 h.

Sarreraren salmenta: La Caixa-ko salmenta zerbitzuen bitartez eta Auditorioko leihatilan.

Irailak 9: Donostia

Kursaal Auditorioa, 20.00 h.

Sarreraren salmenta: Kutxa-ko salmenta zerbitzuen bitartez eta Auditorioko leihatilan.

Irailak 10: Vitoria-Gasteiz

Principal Antzokia, 20.00 h.

Sarreraren salmenta: Caja Vital-ko salmenta zerbitzuen bitartez eta Antzokiko leihatilan.

Programa

Arturo Marquez (1950-): Danzón nº 2* [10']

Michel Camilo (1954-): Piano, hari eta harparako suitea* [25']

Joseph Gianono-ren orkestazioa

Michel Camilo: (1954-): Piano eta Orkestrarako 1. kontzertua* [32']

*lehen aldiz interpretaturiko obra

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi

Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

medios@orquestadeeuskadi.es / prensa@orquestadeeuskadi.es

www.euskadikoorkestra.es



EUSKADIKO
ORKESTRA

Michel Camilo



Santo Domingon (Dominikar Errepublika) jaioa den Michel Camilo-ren teknika liluragarria da eta bere melodiak afrokaribetar erritmoz eta jazz-harmoniaz janzten ditu bere melodiak. Bere musikak jazz-korrante tradizionalekin bat egiten du nagusiki eta latindar ñabardura kutsakor batek eta bere izaera alai eta bizitasunez bete islatzen duen swing-aren zentzu garaikideak bultzatzen dute. Michel Camilo eroso aritzen da jazzean, latindar musikan eta baita musika klasikoan murgildurik. Orkestra sinfoniko ospetsuekin eskaini ditu kontzertuak, esaterako Detroit, Cleveland, Atlanta, Gulbenkian, BBC, Espainiako Nazionala, RTVE, Bartzelona, Nafarroa, Cadaqués, Sevilla, Bilbao eta Tenerifeko orkestrak, New Japan, eta Los Angeles eta Copenhagen-ko orkestra filarmonikoak, besteak beste. Estatu Batuetan, Europan, Japonian, Asian, Ekialde Ertainean, Hego Amerikan eta Karibean sarritan aritzen da jaialdia ezberdinetan. Bakarleri gisa, duoa, hirukotea zein seikotea osatuz, Big Band batekin edo orkestrekin grabatu izan du eta baita filmetarako soinu-bandak grabatu ere eta orain arte kaleratutako hemezortzi grabaketek nazioarte mailan sari ugari merezi izan dituzte: Grammy bat, 2000 urtean Tomatito gitarra-jotzaile flamenkoarekin grabatutako "Spain" diskagatik, bi Latindar Grammy, Grammy sarietarako bi proposamen, Espainian bi Musikaren Sari eta abar. Azken lanen artean, aipagarria da 2009an *Caribe – Michel Camilo Big Band* izenburupean Espainian Calle 54 Records eta Sony Music/BMG-k argitaratutako CD-DVDa, Fernando Trueba zinemagileak zuzendu zuena. Gainera, Michel Camilok filme garrantzitsuen soinu bandak konposatu ditu, esaterako Emilio Martínez-Lázaroren *Amo tu cama rica* eta *Los peores años de nuestra vida* eta Fernando Truebaren *Two Much* filmeena. www.michelcamilo.com

Rubén Gimeno, zuzendaria



2009/2010 Denboralditik Vallés-ko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titular eta artistikoa den Rubén Gimeno bere belaunaldiko espainiar zuzendari gailenetariko dugu. Valentzian jaioa, Bruselako Conservatoire Royale delakoan graduatu zen bioliln eta ganbera musikan eta ondoren orkestra-zuzendaritza ikasketak burutu zituen Maryland-egko Unibertsitatean (Estatu Batuk), James Ross-en ikasle gisa, eta gero Stockholmeko Errege Kontserbatorioan Jorma Panularen ikasle izan zen. Garai hartan gerora bere musik-garapenean erabakiorra izan den harremana izan zuen Alan Gilbertekin. Pekka Salonen, Leonard Slatkin eta Jukka Pekka Saraste-ren ikasle ere izana da. Egun etorkizun handiko zuzendari honek ia espainiar orkestra guztiekin aritu da lankidetzan, esaterako Espainiako Orkestra Nazionala, Bartzelonakoa, Galizia, Gaztela eta León, Granada Hiria, Tenerife edo euskadiko Orkestra, honekin Claves disko etxe suitzarrarentzat diska bat grabatu duelarik. Nazioarte mailan, Orchestre de Chambre de Genève, Gavle Symphony Orchestra, Norrköping Symphony Orchestra, Stockholm Royal Conservatory Symphony Orchestra, MMCK Orchestra (Japan) eta Kolonbiako Orkestra Nazionalarekin aritu da zuzendari gonbidatu gisa. www.rubengimeno.es



EUSKADIKO
ORKESTRA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Zuzendari Titularra: Andrés Orozco-Estrada



28 urteko ibilbidea eta gero, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak musika sinfonikoa hedatzeko eta euskal musikarengan arreta berezia jartzeko helburu tinkoa mantentzen du. Jarduera sendo eta egituratu batean oinarrituta, lau kontzertu-ziklo iraunkor (Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Iruñea), ganbera-musikari eta hurrei eskainitako zikloziklo ezberdinak, euskal musikagileen ekoizpen sinfonikoan zentraturiko disko-politika intentsua garatu eta, halaber, gonbidatu gisa jotzen du opera, udako jaialdietan, etab. Nazioarteko birek garrantzi handia dute ere gure Orkestran. Guztira 13 izan dira, besteak beste Argentina, Brasil, Txile, Alemania, Austria, Suitza, Frantzia, Britainia Handia eta Italia bisitatuz. Guzti honen ondorioz, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa erreferentziazko talde sinfonikoa bilakatu dute Estatu mailan. 1982an sortu zen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren ekimenez. Andrés Orozco-Estrada da Orkestrako Zuzendari Titularra eta Andrey Boreyko Zuzendari Printzipal Gonbidatua. Yehudi Menuhin, Paul McCreesh, Yakov Kreizberg, Pinchas Steinberg, Giovanni Antonini, Jerzy Semkov, Lawrence Foster, Christopher Hogwood edo Jesús López Cobos bezalako sona handiko zuzendariak aritu dira Orkestra zuzentzen. Gurera etorri diren bakarlariena artean, Maria Joao Pires, Frank Peter Zimmermann, Mischa Maisky, Antonio Meneses, Christian Zacharias, Leonidas Kavakos, Radu Lupu, Joaquín Achúcarro, Arcadi Volodos, Heinrich Schiff, Ainhua Arteta, María Bayo, Carlos Álvarez edo Carlos Mena, eta gainera Mike Oldfield, Emilio Aragón, Kepa Junkera eta baita Joan Manuel Serrat ere. www.euskadikoorkestra.es

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi

Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

medios@orquestadeeuskadi.es / prensa@orquestadeeuskadi.es

www.euskadikoorkestra.es